

2019KO AZAROAREN 26KO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 26 DE NOVIEMBRE DE 2019

Akta zenbakia: 15/2019
Bilera data: 2019-11-26
Bilera mota: Ohiko osoko bilkura
Deialdia: Lehenengoa
Ordu: 19:00- 19:50
Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Bertaratutakoak:

Alkatea: Mikel Pagola Tolosa

Zinegotziak:

Jorge Segurado Iriondo
Lucía Goñi Martínez
Agurtzane Mercader Ubillos
Juan Luis Goikoetxea Benzala
Mikel Artola Pagola
David Rosco Jorge
Ainara De Miguel Berasategui
Ainhoa Jauregi Cabezón
Mikel Legarreta Astiasarán
Nekane Ubillos Cipitria
Hermenegildo González Morán
Consuelo Frutos Gonzalez

Idazkaria:

Mateo Habibi Astigarraga López

Urnietan, 2019ko azaroaren 26ean, goian adierazitako zinegotzi jaun-andreak bildu dira, 19:00etan, Mikel Pagola Tolosa alkatea lehendakari dutela, ohiko bilera egiteko.

Gehiengo absolutuaren quoruma gaintu delarik eta lehendakariak bilkura hasi duelarik, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak aztertzeari ekin diote.

Aztergaiak:

- 1.- 2019ko irailaren 24ko ohiko bilkuraren eta urriaren 15eko ez-ohiko bilkuraren aktak onartzea bidezkoa bada.
- 2.- Zinegotzi baten kargu uztearen berri izatea.
- 3.- 2019-2023 Legealdi Plana onartzea.

Acta nº: 15/2019
Fecha: 26-11-2019
Tipo de reunión: Pleno ordinario
Convocatoria: Primera
Hora: 19:00- 19:50
Lugar: Salón de plenos del Ayuntamiento

Reunidos:

Alcalde: Mikel Pagola Tolosa

Concejales:

Jorge Segurado Iriondo
Lucía Goñi Martínez
Agurtzane Mercader Ubillos
Juan Luis Goikoetxea Benzala
Mikel Artola Pagola
David Rosco Jorge
Ainara De Miguel Berasategui
Ainhoa Jauregi Cabezón
Mikel Legarreta Astiasarán
Nekane Ubillos Cipitria
Hermenegildo González Morán
Consuelo Frutos Gonzalez

Secretario:

Mateo Habibi Astigarraga López

En la villa de Urnieta a 26 de noviembre de 2019, siendo las 19:00 horas se reúnen los concejales arriba relacionados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde Mikel Pagola Tolosa, al objeto de celebrar sesión ordinaria.

Superado el quórum de la mayoría absoluta y abierta la sesión por la Presidencia, se procede al desarrollo de los puntos del orden del día.

Orden del día:

- 1.- Aprobar, si procede, el acta de la sesión ordinaria del 24 de septiembre y de la sesión extraordinaria del 15 de octubre del 2019.
- 2.- Tomar conocimiento de la renuncia de un concejal.
- 3.- Aprobar el Plan de Legislatura 2019-2023.

2019KO AZAROAREN 26KO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 26 DE NOVIEMBRE DE 2019

4.- Gaztematikari atxikitzeke proposamena onartzea.

5.- 751-875 alkatetza dekretuen eta Tokiko Gobernu Batzarraren erabakien berri ematea.

6.- Azaroak 25eko (“Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Nazioarteko eguna”) erakunde adierazpen proposamena onartzea.

7.- Abenduak 3ko (“Euskararen nazioarteko eguna”) erakunde adierazpen proposamena onartzea.

8.- EH Bildu taldeak aurkeztutako mozioa: “Adierazpen proposamena, Boliviako Estatu Kolpearen aurrean”.

9.- Galdera-eskariak.

1.- 2019ko irailaren 24ko ohiko bilkuraren eta urriaren 15eko ez-ohiko bilkuraren aktak onartzea bidezkoa bada.

2019ko irailaren 24ko ohiko bilkuraren eta urriaren 15eko ez-ohiko bilkuraren aktak onartzea proposatzen da.

Udalbatzak aho bateko adostasunez onartu du 2019ko irailaren 24ko ohiko bilkuraren eta urriaren 15eko ez-ohiko bilkuraren aktak onartzea.

Hurrengo puntura pasa baino lehen, Mikel Pagola alkateak aurreko irailaren 24ko Udalbatzan Herme Gonzalez Urnietako Alderdi Sozialistako bozeramaileak egindako erreklamazioari erantzuna eman nahi dio. Hain zuzen ere Gonzalez jaunak Udalbatza ekainean osatu eta iraila bitartetan, ez talde izateagatik ez zinegotzi izateagatik ezta bileretako bertaratzeak ere, udalak ordaindu beharreko hileroko ordainsariak ez zituztela kobratu adierazi zuela. Informazioa kontratastatu ondoren, onartzen du gaizki egin zirela gauzak eta ez zitzaizkiela ordainsari horiek ordaindu. Baina iraila bukaeratik gaur arte ordainsari horiek erregularizatu egin direla eta ordainketekin normal jarraitzen dela.

4.- Aprobar la propuesta de adhesión a gaztematika.

5.- Dar cuenta de los decretos de alcaldía 751-875 y de los acuerdos de la Junta de Gobierno Local.

6.- Aprobar la propuesta de declaración institucional del 25 de noviembre (“día internacional contra la violencia hacia las mujeres”).

7.- Aprobar la propuesta de declaración institucional del 3 de diciembre (“día internacional del euskera”).

8.- Moción presentada por el grupo EH Bildu: “propuesta de declaración: ante el golpe de estado en Bolivia”.

9.- Ruegos y preguntas.

1.- Aprobar, si procede, el acta de la sesión ordinaria del 24 de septiembre y de la sesión extraordinaria del 15 de octubre del 2019.

Se propone la aprobación del acta de la sesión ordinaria del 24 de septiembre y de la sesión extraordinaria del 15 de octubre del 2019.

El Pleno ha aprobado por unanimidad el acta de la sesión ordinaria del 24 de septiembre y de la sesión extraordinaria del 15 de octubre del 2019.

Antes de pasar al siguiente punto, el alcalde Mikel Pagola quiere dar respuesta a la reclamación realizada por el portavoz del Partido Socialista de Urnietá, Herme González, en el Pleno del pasado 24 de septiembre. En concreto, el Sr. González manifestó que desde la conformación del pleno en junio hasta septiembre, ni por ser grupo, ni por ser concejal, ni por asistir a reuniones, no cobraron las retribuciones mensuales que debía abonar el Ayuntamiento. Una vez contrastada la información, reconoce que se hicieron mal las cosas y que no se les pagaron esas retribuciones. Pero que desde finales de septiembre hasta hoy esas retribuciones se han regularizado y que se sigue con normalidad con los pagos.

2019KO AZAROAREN 26KO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 26 DE NOVIEMBRE DE 2019

2.- Zinegotzi baten kargu uztearen berri izatea.

Mikel Pagola alkateak Ainara De Miguel Urnietako EH-Bilduko bozeramaileari eman dio hitza.

De Miguel andreak dio azkeneko hauteskundeetan Urnietako EH-Bilduk lau eserleku lortu zituela Udalbatza honetan, gaur azaldu diren lau zinegotzi hain zuzen ere, Mikel Legarreta horien artean. Mikelek saiakera handi bat egin duela eta asko lagundu diola taldeari gehitzen du, baina bere lanarekin Udalaren jarduerak behartzen duten erritmoa bateraezina egin zaiola. Horregatik adostu dutela bere kargutik txandakatzea.

Urnietako Euskal Herria Bildu Udal talde politikoko kide den Mikel Miren Legarreta Astiasaran zinegotziak, ***9244** NA zenbakia duena, 2019ko azaroaren 12an 2019-00000003048 sarrera erregistro zenbakiarekin idatzi bat aurkeztu zuen zeinetan adierazten duen egun duen zinegotzi kargua uzten duela.

Aipatutako pertsona zinegotzi hautatua izan zen 2019ko maiatzaren 26ko toki-erakundearen eta kargua-hartzea 2019ko ekainaren 28ko ez-ohiko Udalbatzan egin zuen.

Ikusirik ekainaren 19ko Hauteskunde Eraentza Orokorreko 5/1985 Lege Organikoaren 182. artikulua eta 3/2003 Jarraibidea, uztailearen 10ekoa, Hauteskunde Batzorde Zentralarena, tokiko ordezkariak karguak ordezkatzeari buruzkoa.

Kargu hutsa dagokion zerrenda bereko hautagaiarekin edo, hala badagokio, ordezkarekin bete behar dela ikusita, haren kokapen-hurrenkerari erreparatuta, eta zerrendan hurrengo pertsona Xabier Yurramendi Garmendia dela ikusita (Donostiako Eskualdeko Hauteskunde Batzordearen udalerrietako 2019ko udal-hauteskundeetarako aldarrikatutako hautagaien ziurtagiria, 2019ko apirilaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua, 80. zk.).

2.- Tomar conocimiento de la renuncia de un concejal.

El alcalde Mikel Pagola cede la palabra a la portavoz de EH-Bildu en Urnieta, Ainara De Miguel.

La Sra. De Miguel dice que en las últimas elecciones EH-Bildu de Urnieta obtuvo cuatro escaños en esta Corporación, concretamente cuatro concejales que han acudido hoy, entre ellos Mikel Legarreta. Añade que Mikel ha hecho un gran esfuerzo y que ha ayudado mucho al grupo, pero que con su trabajo le ha resultado incompatible el ritmo al que obligan las actividades del Ayuntamiento. Por eso han acordado relevarlo de su cargo.

El concejal integrado en el grupo político municipal Euskal Herria Bildu de Urnieta Mikel Miren Legarreta Astiasaran, con DNI número ***9244** , presentó el 12 de noviembre de 2019 con nº de registro de entrada 2019-00000003048 un escrito en el que manifiesta que renuncia al cargo de concejal que actualmente ostenta.

La citada persona resultó elegida concejal en las elecciones locales de 26 de mayo de 2019 y tomó posesión del cargo de concejal en el Pleno extraordinario del 28 de junio de 2019.

Visto lo dispuesto en el artículo 182 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, del Régimen Electoral General y en la Instrucción 3/2003, de 10 de julio, de la Junta Electoral Central, sobre sustitución de cargos representativos locales.

Visto que procede cubrir la vacante con el/la candidata/a o, en su caso, el/la suplente de la misma lista a quien corresponda, atendiendo a su orden de colocación, y que la siguiente persona en la lista es Xabier Yurramendi Garmendia (certificación de las candidaturas proclamadas a las Elecciones Municipales 2019 de los municipios de la Junta Electoral de Zona de San Sebastián publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 80, de 30 de abril de 2019).

2019KO AZAROAREN 26KO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 26 DE NOVIEMBRE DE 2019

Bozketa egin ondoren, Urnietako Udalbatzak aho bateko adostasunez honako hau

ERABAKITZEN DU

Lehena.- Mikel Miren Legarreta Astiasaran Urnietako Euskal Herria Bildu taldeko zinegotziak kargua uzteko erabakiaren ezagutza hartzea.

Bigarrena.- Kargu huts hori Hauteskunde-araubide Orokorren Lege Organikoan ezarritakoaren arabera betetzea, eta korporazioaren iritziz Xabier Yurramendi Garmendiarekin betetzea dagokiola jakinaraztea.

Hirugarrena.- Hauteskunde Batzorde Nagusira hitzarmen honen ziurtagiria bidaltzea.

(Honen ondoren, Mikel Miren Legarreta Astiasaran jaunak saioa utzi du, eta beraz, hemendik aurrera, 12 izango dira egitez eta eskubidez osoko bilkura osatuko duten zinegotziak.)

3.- 2019-2023 Legealdiko Plana onartzea.

Mikel Pagola alkateak hartu du hitza adierazteko gaurkoan 2019-2023 Legealdiko Plana aurkeztu dela, datozen lau urteetako jardura politikoa planifikatzen duen dokumentua delarik. Horretarako, dokumentu horretan Urnietako Udalaren misioa, ikuspegia eta balioak zein izango diren zehazten dela. Guztira egungo Udaleko barne antolaketa kontutan hartuz, hau da, hiru sail nagusi daudela: Herritargoa, Lurralde eta Antolaketa, eta sail horietan datozen lau urteetan bete beharko diren 22 helburu estrategikoak nabarmentzen direla dokumentu honetan. Horietatik 9 Herritargoan, 5 Lurraldean eta 8 Antolakuntzan. Era berean, helburu estrategiko hauek burutu ahal izateko, sailtako buruek proposatutako ekintza ildoak ere agertzen direla. Azkenik, dokumentu honekin batera urte urte kudeaketa planak aurkeztu beharko direla gehitzen du, non ekintza ildo horiek burutu ahal izateko beharrezkoak diren ekintza zehatzak agertuko diren.

Sometido a votación, el Pleno del Ayuntamiento de Urnieta, por unanimidad, adopta el siguiente

ACUERDO:

Primero.- Tomar conocimiento de la renuncia presentada por Mikel Miren Legarreta Astiasaran del grupo político municipal Euskal Herria Bildu de Urnieta a su cargo de concejal.

Segundo.- Proceder a cubrir la vacante de acuerdo con lo establecido en la Ley Orgánica de Régimen Electoral General, correspondiendo a juicio de la corporación cubrir la misma con Xabier Yurramendi Garmendia.

Tercero.- Remitir a la Junta Electoral Central la certificación de este acuerdo.

(Tras este punto, el Sr. Mikel Miren Legarreta Astiasaran abandona la sesión, por lo que a partir de ahora serán 12 los concejales que de hecho y de derecho conformen la sesión plenaria.)

3.- Aprobar el Plan de Legislatura 2019-2023.

El alcalde Mikel Pagola, toma la palabra para señalar que hoy se presenta el Plan de Legislatura 2019-2023, documento que planifica la actividad política de los próximos cuatro años. Para ello, en dicho documento se detallan la misión, visión y valores del Ayuntamiento de Urnieta. Todo ello teniendo en cuenta la organización interna del actual consistorio, es decir, la existencia de tres principales áreas: Ciudadanía, Territorio y Organización, destacando en este documento los 22 objetivos estratégicos que deberán cumplirse en los próximos cuatro años. 9 de ellos en Ciudadanía, 5 en Territorio y 8 en Organización. Asimismo, se recogen las líneas de actuación propuestas por las personas técnicas responsables de las diferentes áreas para la consecución de los objetivos estratégicos mencionados. Por último, añade que este documento deberá ir acompañado de planes de gestión anuales en los que figuren las acciones concretas necesarias para poder llevar a cabo estas líneas de actuación.

2019KO AZAROAREN 26KO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 26 DE NOVIEMBRE DE 2019

Eztabaida txanda irekita, Herme González Urnietako Udal Talde Sozialistako bozeramaileak hartu du hitza. Adierazi du Urnietako sozialistentzat Legealdi Plana oso dokumentu garrantzitsua eta beharrezkoa dela, ez bakarrik garatu beharrekotako ekintza guztiak markatzen dituelako, baizik eta, bere ustez, datozen lau urteetatik harago doazen erabakiak daudelako, edo hala izan beharko luke gutxienez. Sozialistek herri proiektua dutela gehitu du, eta sinetsita daude asko dagoela egiteke. Aurreko legegintzaldietan, Urnietako ez da hazi eta geldirik egon da, etxebizitzarik eza izan da gure udalerrian egin den kalte handienetako bat, eta gazteek herritik alde egin behar izan dute, gobernatzen ari direnek ez dietelako beren jaioterrian etorkizuna erraztu. Arazo horren ondorioz, jaiotza-tasak behera egin du, merkataritza txikia gaizki pasatzen ari da, adinekoei zerbitzuak falta zaizkie, eta abar. Horregatik guztiagatik, publikoki konpromisoa hartu dute udalerriko arazo horiei eta beste batzuei irtenbidea emateko, gauzak beste modu batera eta, jakina, askoz hobeto egin daitezkeela erakusteko. Jakitun dira non dauden eta non jarri dituzten, baina horrek ez die eragotziko borrokatzen eta Urnietako batuagoa, aurreratuagoa, teknologia- eta ingurumen-garai berrietara egokituagoa, zerbitzu gehiagorekin eta hobeez, benetako parte-hartzearekin eta bizikidetzan, azken batean herri hobe bat defendatzen jarraitzea. Ez diote ihes egiten utzi nahi gaur hemen aurkeztutakoaren antza ez duen Legealdi Plan bat izan zitekeenaren zertzelada batzuk eman ahal izateko duten aukerari. Beraien kontrako botoa argudiatzeko modurik onena hori dela uste dute.

Adinekoekin hasiko dira, eta haien konpromisoa da errealitate bihurtzea Foru Aldundiarekin dauden bi akordioak, 120 plaza dituen adinekoentzako egoitza bat eraikitzeko eta etxebizitza babestuen zerbitzurako pisua eraikitzeko; egungo erretiratuaren zentroa birgaitzea, baina ez soilik birgaitzea, baizik eta edukia ematea ariketa eta dantza gelek, zenbait jardueratarako gelek, memoriaren tailerrarekin, bakardadeari aurre egiteko programarekin, eskularen tailerrarekin, jantokiarekin eta abarrekin.

Gazteei dagokienez, ahalegin guztia egingo dute bereziki gazteentzako etxebizitza sustatzen, bultzatzen eta errazten; izan ere, orain arte inguruko

Abierto el turno de debate toma la palabra Herme González portavoz del Grupo Municipal Socialista de Urnieta. Manifiesta que para los socialistas de Urnieta el Plan de Legislatura es un documento muy importante y necesario, no sólo porque marca la totalidad de las acciones a desarrollar sino que e su entender hay decisiones que van más allá de los próximos cuatro años, o así debería de ser por lo menos. Añade que los socialistas tienen un proyecto de pueblo y están convencidos que hay mucho por hacer. Viene marcado de anteriores legislaturas donde Urnieta no ha crecido y ha estado paralizada, siendo la falta de vivienda uno de los mayores daños hechos en nuestro municipio, y los jóvenes han tenido que marcharse del pueblo porque los que gobiernan no les han facilitado un futuro en su pueblo natal. Fruto de este problema ha descendido la natalidad, el pequeño comercio lo está pasando mal, a los mayores les faltan servicios, etc. Por todo ello, se han comprometido públicamente a dar solución a estos y otros problemas del municipio, a demostrar que las cosas se pueden hacer de otra manera y desde luego bastante mejor. Son conscientes de dónde están y dónde les han puesto, pero que eso no les va a impedir que sigan luchando y defendiendo Urnieta, más unida, más avanzada, más adaptada a los nuevos tiempos tecnológicos y medioambientales, con más y mejores servicios, con una participación real y en convivencia, en definitiva un pueblo mejor. No quieren dejar escapar esta oportunidad que tienen, nada más y nada menos, de poder dar unas pinceladas de lo que para ellos podía ser un Plan de Legislatura y que demostrará que no se parece al presentado hoy aquí. Piensan que esta es la mejor manera de argumentar su voto en contra.

Empezarán con los mayores, y su compromiso es hacer realidad los dos acuerdos que hay con la Diputación Foral para la construcción de una residencia de mayores con 120 plazas y la construcción de piso para el servicio de vivienda tutelada; rehabilitación de actual centro del jubilado, pero no sólo rehabilitarlo sino darle contenido con salas de ejercicio, baile, aulas para diferentes actividades, taller de la memoria, programa para combatir la soledad, taller de manualidades, comedor, etc.

En cuanto a la juventud, van a dedicar todo su esfuerzo a promover, potenciar y facilitar la vivienda en especial a los jóvenes, ya que hasta

2019KO AZAROAREN 26KO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 26 DE NOVIEMBRE DE 2019

beste udalerrri batzuetara joatea beste aukerarik ez dute izan, Urnietan duela 18 urte baino gehiago ia ez baita etxebizitzarik eraikitzen. Datuak ikaragarriak dira; adibide bat jartzearen, 2017an 25 eta 35 urte bitarteko 100 gazte baino gehiago joan ziren, eta uste dute gaitz bat eta kudeaketa txarra dela denboran zehar. Mikaelenean Gaztetxea eraikitzeak aukera aztertzea, gazteak elkartu eta jarduera desberdinak egin ahal izan ditzaten. Hori aspalditik eskatzen da, eta Urnietako gizarte-bizitzan parte hartzeko aukera eta erraztasun gehiago ematea. Haiek dira etorkizuna.

Administrazioari dagokionez, adierazi du administrazioari buruz duen ikuspegia haren barruan giro ona egotea dela, eta horrela bakarrik zabalduko dela kanpora barruan gertatzen dena, elkarriketarako irekiagoa, gardenagoa, parte-hartzaileagoa eta errespetuzkoagoa.

Kiroldegi berriari dagokionez, akats larria dela uste dute, eta Urnietaren etorkizuna markatuko duela urte askotarako, eta tristeki etorkizunak arrazoa emango diela. Horregatik, guztiontzako kiroldegi bat proposatzen dute, igerileku klimatizatuarekin, kafetegi taberna eta kiroldegiaren inguruko pista batekin, oinez eta korrika ibiltzeko.

Parkeei dagokienez, gero eta gutxiago dira euri-egunetarako edo eguzki-egunetarako eremu estalirik ez duten udalerrriak; haien apustua Yurramendiko parkearen zati bat modu koloretsu eta modernoan estaltzea da, eta Etxeberriko parkean plazarekin bat datorren erabilera anitzeko oso beharrezkoa den eremu estali bat proposatzen dute.

Hezkuntzari dagokionez, balioetan ulertzen dute: elkartasuna, umiltasuna, errespetua, bizikidetzeta, etab., eskola publiko eta kalitatezkoaren alde egiten jarraituko dute, 0-16 urte bitarteko eskola-campusa eraikiz; hori duela urte asko egin behar zen, eta ez da borondate politikorik egon hori egiteko.

Zerbitzuak bateratzea. Zerbitzuak sakabanatuta daude udal lurralde osoan, eta lurralde handiegia ez bada ere, zerbitzuak oso banatuta daude. Hori dela eta, udal zerbitzu guztiak, liburutegia, udal artxiboa, gizarte zerbitzuak, epaitegia eta abar bateratzea proposatzen dute. Zerbitzuak elkarrekin eta Udaletik gertu izatea eraginkorragoa litzateke eta zerbitzuak hobetuko lirateke.

ahora no han tenido otra opción que irse a otros municipios de los alrededores, porque en Urnieta hace más de 18 años que apenas se construye vivienda. Los datos son escalofriantes, poniendo un ejemplo, en 2017 se fueron más de 100 jóvenes de entre 25 y 35 años, y consideran que es una lacra y una mala gestión continuada en el tiempo. Estudiar la posibilidad de construir un Gaztetxe en Mikaelenea donde los jóvenes puedan reunirse y realizar distintas actividades, algo que se viene demandando hace mucho tiempo, y darles más posibilidades y facilidades para que participen en la vida social de Urnieta. Ellos y ellas son el futuro.

En cuanto a la administración, afirma que su visión de la administración es que haya un buen ambiente dentro de ella, sólo así se trasladará fuera lo que ocurra dentro, más dialogante, más transparente, más participativa y más respetuosa.

Respecto al nuevo polideportivo, creen que es un grave error y que marcará el futuro de Urnieta para muchos años, y que tristemente el futuro les dará la razón. Por ello, proponen un polideportivo para todos y para todas con piscina climatizada, bar cafetería y una pista alrededor del polideportivo para andar y correr.

En cuanto a los parques, cada vez son menos los municipios que no cuentan con una zona cubierta para los días de lluvia o de mucho sol, su apuesta es cubrir parte del parque de Yurramendi de forma colorida y moderna y en el parque de Etxeberri proponen una zona cubierta multiuso acorde con la plaza, muy necesaria y muy solicitada.

Respecto a la educación, la entienden en valores: solidaridad, humildad, respeto, convivencia, etc. Seguirán apostando por una escuela pública y de calidad, llevando a cabo la construcción del campus escolar de 0-16 años, algo que se tenía que haber hecho hace muchos años, que no ha habido voluntad política para hacerlo.

Unificar los servicios. Los servicios están dispersos por todo el territorio municipal, y que aunque no es un territorio excesivamente grande, pero los servicios están muy repartidos. Por ello, proponen unificar todos los servicios municipales, biblioteca, archivo municipal, servicios sociales, juzgado, etc. Tener los servicios juntos y cerca del Ayuntamiento sería más eficaz y se mejorarían los servicios.

2019KO AZAROAREN 26KO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 26 DE NOVIEMBRE DE 2019

Etxebizitza soziala. Hiri-jabetzako solairuartera dute Errekalde kalean, 1.200 m²-koa, eta hori erabiliko dugu 15-18 apartamentu sozial egiteko. Proposamen hori aspalditik dator eta ez da gauzatu. Aranzubi eta Idiazabal kaleko tartean mugikortasuna hobetzea, arrapala mekanikoen bidez.

Hirigintza. Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren barruan behin eta berriz dator "adeitsua" hitza, hirigintzarekin adeitsua izatea alegia, eta egiazta daiteke Urnietako hirigintzarekin adeitsua izaten ari ez dela, udalerrian zehar buelta bat ematea besterik ez dago. Gogo, ilusio, logika eta gustu pixka batekin, eurek termino hori aplikatuko liokete etorkizuneko hirigintzari.

Tokiko merkataritza biziberritzea eta babestea. Udalerritik alde egin behar duten gazteak bezala, merkataritza txikia hiltzen ari da, asko ixten dira eta bizirik irauten dutenek nekez egiten dute. Lagundu egin behar zaie, eta politika serioekin egin behar da apustu, azkar eta atzerapenik gabe.

Bake eta bizikidetzarako benetako plana. Benetako memoria eta bizikidetzaren plan bat egon behar du, entzuten ez den memoria asko eta bizikidetzaren asko hautsita baitago. Batetik, haiek ez daude batzorde horretan, eta haren aktore garrantzitsuak dira, eta horrek agerian uzten du zerbait huts egiten ari dela.

Hori guztia proposatzen dute hemen, alkateak proposatutako Legealdi Planaren eta Urnietaren etorkizuna ikusteko duten moduaren artean dagoen aldea kontrastatzeko.

Amaitzeko, esan du ez dagoela bere programa osoa, baina bere proposamenetako batzuk utzi nahi zituela.

Alkateak proposatutako Legealdi Planari dagokionez, "ezezko" erantzuna eman behar diotela adierazi du, titular handiak dituen zehaztasunik gabeko plana iruditzen baitaie; beste legealdi batzuetan gauzatu ez ziren zati errepikakorrak ditu. Esperientzia dute aurreko gobernu-taldeek ez dituztela bete hasieran ezarri ziren legealdi planak. Beraz, hori gauzatu den mesfidantza erabatekoa da. Titularren bat partekatu dezakete, baina ziurgabetasun handia sortzen du horien garapenak.

Vivienda social. Cuentan con una entreplanta de propiedad municipal en la calle Errekalde de 1.200 m² la cual utilizaremos para hacer 15-18 apartamentos sociales, propuesta que viene desde hace mucho tiempo y que no se ha consumado. Mejorar la movilidad en el tramo de la calle Aranzubi e Idiazabal mediante rampas mecánicas.

El Urbanismo. Dentro del Plan General de Ordenación Urbana viene reiteradamente la palabra "amable", osea ser amable con el urbanismo, siendo constatable que no se está siendo amable con el urbanismo en Urnieta, sólo hay que darse una vuelta por el municipio. Con un poco de ganas, ilusión, lógica y buen gusto, ellos aplicarían este término al urbanismo del futuro.

Revitalizar y apoyar el comercio local, así como los jóvenes que tienen que marcharse del municipio, el pequeño comercio de está muriendo, se cierran muchos y los que subsisten lo hacen a duras penas. Hay que ayudarles y apostar con políticas serias, rápido y sin demora.

Un verdadero plan de paz y convivencia. Tiene que haber un plan de memoria y convivencia real, ya que hay mucha memoria que no se escucha y mucha convivencia rota. Por un lado, ellos no están en esa comisión y son actores importantes de ella, lo que deja de manifiesto que algo está fallando.

Todo esto lo proponen aquí para contrastar la diferencia que hay entre el Plan de Legislatura propuesto por el alcalde y su forma de ver el futuro de Urnieta.

Termina diciendo que no está todo su programa pero que quería dejar algunas de sus propuestas.

En cuanto al Plan de Legislatura propuesto por el alcalde, señala que tienen que darle un "no" por respuesta, ya que les parece un plan con grandes titulares pero sin concreciones, parte son repetitivas y reiterativas de otras legislaturas que no se llegaron a consumir. Tienen la experiencia de que los distintos equipos de gobierno anteriores no han cumplido los planes de legislatura que se marcaron al principio de las mismas. Por lo tanto, la desconfianza de que éste se lleve a cabo es total. Pueden compartir algún titular, pero que crea mucha incertidumbre el desarrollo de los mismos.

2019KO AZAROAREN 26KO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 26 DE NOVIEMBRE DE 2019

Kontua da aktore berberekin film bera dutela eta hori dagoeneko ikusi dutela.

Hala ere, adierazi du sozialistak batzorde bakoitzean, aurkezten zaien proposamen bakoitzean, osoko bilkuretan, Bozeramaileen Batzordeetan eta abarretan ikusten joango direla; zerbait ona dela uste badute, babestuko dute, eta ona ez dela edo hobetu daitekeela ikusten badute, aurka egongo dira. Eta amaitzeko, esan du Legealdi Plan honen aurka bozkatuko dutela, eta Udal hau oso ondo definitzen duen aipamena egin nahi izan du: *"Aurrerapena eta garapena ezinezkoak dira gauzak beti egin diren bezala egiten jarraitzen badugu"*.

Ainara de Miguel Urnietako Eh-Bildu Udal taldeko bozeramaileak hartu du hitza. 2019-2023 Legealdiko Plana aztertu ondoren beraien iritziz oso orokorra dela adierazten du, eta ekintza konkreturik gabekoa, edonork baiezkoa emateko moduko plana. Hala ere, bere taldeak beste hausnerketa bat egin dutela, azkeneko urteetan gobernu taldetik proposatutako hainbat asmo burutu gabe geratu baitira, hala nola, eskola municipala erortzen ari dela, gazteak herritik joaten ari direla, promesa eta izenburu potzoloen baitan geratzen ari diren feminismoaren aldeko borroka, berdintasun teknikari bat... baita, lehen sektorearen egoera ere, geroz eta gehiago ixten ari diren komertzioak. Ondorioz, gobernu talde honetan konfidantzarik ez dutela adierazi du eta ezin dutela gaur aurkezten duten plan honetan sinistu, izan ere baiezkoa emateko ez dago plan hau abalatzten duen datu historikorik. Asko hausnartu dutela gai honen inguruan, eta ilusioz eta itxaropenaz kudeaketa planaren zain geratzen direla, ekintza zehatzetan eta beteko diren promesetan oinarrituta egotea espero dutela. Horregatik, beraien bozka abstentzioa izango dela.

Mikel Pagola alkateak hartu du hitza. Udal Talde Sozialistari Legealdi plan hau ez dela ekintzak jasotzeko dokumentua, ekintza zehatzak jasoko duen dokumentua urteko kudeaketa planak izango direla argitu nahi dio.

Etxebizitzaren arazoaren gaiaren inguruan, egia dela azkeneko urteetan ez direla etxebizitza asko eraiki, baina Urnietan etxebizitzak salgai badaudela, eta herriko gazteek nahi izan bazuten bigarren

La cuestión es que con los mismos actores tienen la misma película y esa ya la han visto.

No obstante, señala que los socialistas irán viendo en cada comisión, en cada propuesta que se les plantee, en los Plenos, en las Juntas de Portavoces, etc, si hay algo que consideran buena lo apoyarán y si ven que no es bueno o por el contrario se pudiera mejorar, estarán en contra. Y para finalizar dice que votarán en contra de este Plan de Legislatura y quiere dejar constancia de una cita que define muy bien a este Ayuntamiento: *"El progreso y el desarrollo son imposibles si uno sigue haciendo las cosas tal como siempre las ha hecho"*.

Toma la palabra la portavoz del grupo municipal EH Bildu de Urnieta, Ainara de Miguel. Tras analizar el Plan de Legislatura 2019-2023, manifiesta que consideran que es muy general y sin acciones concretas, un plan en el que cualquiera puede votar que sí. Sin embargo, su grupo ha hecho otra reflexión, ya que en los últimos años se han quedado sin materializar varios propósitos planteados desde el equipo de gobierno, como la caída de la escuela municipal, la salida de jóvenes del pueblo, la lucha a favor del feminismo que se está quedando en promesas y grandes títulos, un o una técnica de igualdad... y la situación del sector primario, comercios que cada vez se está cerrando más. En consecuencia, manifiesta que no tienen confianza en este equipo de gobierno y que no pueden creer en este plan que presentan hoy, porque no hay ningún dato histórico que avale este plan para votar a favor. Señala que han reflexionado mucho sobre este tema, y que con ilusión y esperanza quedan a la espera del plan de gestión, que esperan que esté basado en acciones concretas y en promesas que se van a cumplir. Por ello, su voto será de abstención.

Toma la palabra el alcalde, Mikel Pagola para aclararle al Grupo Municipal Socialista que este plan de legislatura no es un documento para recoger acciones, los documento que recogerán acciones concretas serán los planes de gestión anuales.

Sobre el tema de la vivienda, es cierto que en los últimos años no se han construido muchas viviendas, pero que en Urnieta hay viviendas a la venta, y que si que los jóvenes del pueblo hubieran

2019KO AZAROAREN 26KO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 26 DE NOVIEMBRE DE 2019

eskuko etxeak erosteko aukerak izan dituztela, zeren gaur egun 70-80 bigarren eskuko etxeak badaudela. Nolanahi ere, saiatuko direla ahalik eta azkarren egiten. Plan Orokorren garapenaren atzerapenaren kritikaren inguruan, agian mahai honetan dauden alderdi ezberdinetako kideek bakoitzak bere ardurak izango litzukeela.

Talde Sozialistak egindako proposamenak nolabait ondo geratzeko proposamenak direla, zeren urtez urteko kudeaketa egiteko garaiean eta aurrekontuetan zenbakiak jartzeko garaiean, ea hori guztia nola orekatu daitekeen galdetzen du.

Bake eta Bizikidetzaren batzordearen inguruan Gonzalez jaunak adierazitakoa tamalgarria iruditzen zaiola adierazten du alkateak, lehenik eta behin batzorde horretan ez daudenaren zergatiaren inguruko hausnarketa beraiek egin beharko luketeela. Behin eta berriro gonbidatu zaiela bertan egotera, bere garaiean egon zirela eta atera egin zirela. Nolanahi ere, etorri nahi zuten guztiakin Bizikidetzaren lantzen jarraitu behar zutela erabaki zela, hortik aurrera bakoitzak onartu beharko dituela hartutako erabakien ondorioak.

EH-Bilduk adierazitakoaren inguruan, urteko kudeaketa planean ikusiko direla proposatzen diren ekintza zehatzak, eta orduan ikusiko dela nahikoak diren edo ez, eta saiatuko direla zalantzan jarritako sinesgarritasuna lortzen.

Puntu honen eztabaidan bigarren txanda irekita, berriro ere Herme Gonzalez Urnietako Udala Talde Sozialistako bozeramaileak hartu du hitza. Udalerriko etxebizitza faltaren arazoari dagokionez, Herme dio bigarren eskuko etxebizitza dagoela eta gazteek aukeratzeko aukera dutela esatea asko esatea dela, eta hori baldin bada gobernu-taldearen planteamendua, ez duela ezer esango. Bestalde, alkateari esaten dio ez duela onartuko Bizikidetzaren batzordearen inguruan esandakoa, ez baitu uste alkatea ziur dagoenik esandakoaz. Gaineratu du, alkateak deitu dien guztietan, beti etorri direla, beti, ez dutela inoiz aitzakiarik jarri eta ez diotela etortzeari utzi edozertarako eskatu zaienean. Gogora ekarri du Bake eta Bizikidetzaren Planaren gaia konpontzen saiatzeko azken bilera duela bi urte izan zela. Bilera horretan, EAJK plan horri buruzko zenbait proposamen eta gai emateko konpromisoa hartu zuen; izan ere, haiek plan horri

querido, hubieran podido adquirir casas de segunda mano, porque hoy en día hay 70-80 casas de segunda mano. En todo caso, intentarán hacerlo lo más rápido posible. En torno a la crítica del retraso en el desarrollo del Plan General, quizá los miembros de los diferentes partidos presentes en esta mesa tendrían sus respectivas responsabilidades.

Señala que las propuestas realizadas por el Grupo Socialista son propuestas para quedar de alguna manera bien, porque a la hora de hacer una gestión anual y de poner números en los presupuestos, pregunta cómo se puede equilibrar todo eso.

El Alcalde señala que le parece lamentable lo manifestado por el Sr. González en relación a la comisión de Paz y Convivencia, en primer lugar deberían ser ellos quienes reflexionen sobre el motivo de no estar en dicha comisión. Que se les ha invitado una y otra vez a estar allí, que estuvieron en su día y que salieron. En cualquier caso, se decidió seguir trabajando la Convivencia con todos los que querían venir, a partir de ahí cada uno tendrá que asumir las consecuencias de las decisiones que adopta.

En relación con lo manifestado por EH-Bildu, dice que en el plan de gestión anual se verán las acciones concretas que se propongan, y que entonces se verá si son suficientes o no, y que intentarán conseguir la credibilidad cuestionada.

Abierto el segundo turno en el debate de este punto, toma la palabra nuevamente Herme González portavoz del Grupo Municipal Socialista de Urnieta. En cuanto al problema de la falta de vivienda en el municipio, Herme afirma que decir que hay vivienda de segunda mano y que los jóvenes tienen la oportunidad de elegir, opina que es mucho decir, y que si ése es el planteamiento del equipo de gobierno, no va a decir nada. Por otro lado, le dice al alcalde que no va a aceptar lo que ha dicho en relación a la comisión de Convivencia, ya que no cree que el alcalde esté convencido de lo que ha dicho. Añade, que siempre que el alcalde les ha llamado, siempre han venido, siempre, que nunca han puesto ninguna excusa ni han dejado de venir cuando se les ha requerido para cualquier cosa. Recuerda que la última reunión para intentar solucionar el tema del Plan de Paz y Convivencia fue hace dos años, en la cual el

2019KO AZAROAREN 26KO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 26 DE NOVIEMBRE DE 2019

buruzko kexak aurkeztu zituzten. Horren ondorioz, haiek hortik atera ziren, eta bi urte daramatzate zain.

Mikel Pagola alkateak esan du bitartekariak ere erabili dituztela egoera desblokeatzeko.

González jaunak esan du gobernu-taldeak bere alderdia ere erabili duela bitartekari gisa, batzorde horretan sartzeko presio egiteko, baina Gonzalez jaunak adierazi du gai horietan ez dagoela bitartekorik, Urnietako Udaleko udal-taldeak izanik, egunero egoten baitira hemen. Berretsi du bi urte daramatzatela Bake eta Bizikidetzeta Plana nola garatu behar duen jakiteko gobernu-taldearen proposamenen zain. Gaineratu du Bake eta Bizikidetzeta Plan hori existitzen dela Talde Sozialistak bultzatu zuelako, abiatu zenean EH-Bildu ez zuelako Plan horretan sartu nahi izan, eta, hala ere, Talde Sozialistak behin eta berriz esan zuen ordezkaturako talde guztiek egon behar zutela, eta, azkenean, EH-Bildu onartu zuen bertan parte hartzea.

Adierazi du gauza bat dela Bizikidetzeta Plana garatzen hastea, eta beste gauza bat Bizikidetzeta Planak hartu zituen bideak, eta horren inguruko kexak adierazita daudela.

Horregatik guztiagatik, esan du alkateari ez diola onartuko esatea deitu zaiela eta ez diotela kasurik egin. Eta zain jarraitzen dutela.

Ainara De Miguel Urnietako EH-Bildu Udal taldearen bozeramaileak hartu du hitza berriz. Mahai honetan talde politiko desberdin daudela esaten du, eta plan demokratiko baten eta bizikidetzan ilusio handiarekin biziko lukeela denen partaidetza adierazten du.

Mikel Pagola alkateak dio beraiek ere ados daudela De Miguel andreak esandakorekin. Bake eta Bizikidetzeko batzordeak ondo funtzionatzeko Udalbatza honetan ordezkaturik dauden hiru

PNV se comprometió a pasarles una serie de propuestas y cuestiones con respecto a ese plan por las cuales ellos presentaron sus quejas con respecto al mismo, y como consecuencia de ello ellos se salieron de ahí, y que llevan esperando dos años.

El alcalde Mikel Pagola dice que incluso han utilizado intermediarios para desbloquear la situación.

El Sr. González dice que efectivamente el equipo de gobierno incluso ha utilizado como intermediario a su partido con el objeto de presionarles para que entren en esa comisión, pero el Sr. González afirma que en estas cuestiones no hay intermediarios, ya que siendo grupos municipales del Ayuntamiento de Urnieta están aquí todos los días. Reitera que llevan dos años esperando a las propuestas del equipo de gobierno de cómo iba a desarrollar el Plan de Paz y Convivencia. Añade que este Plan de Paz y Convivencia existe porque el Grupo Socialista lo propició, porque cuando se inició EH-Bildu no quería entrar en este Plan, y sin embargo el Grupo Socialista insistió en que tenían que estar todos los grupos representados y finalmente EH-Bildu accedió a formar parte del mismo.

Señala que una cosa es empezar a desarrollar el Plan de Convivencia y otra cosa los derroteros que cogió el Plan de Convivencia, y que sus quejas al respecto están más que manifestadas.

Por todo ello, dice que no le va a consentir al alcalde que diga que se les ha llamado y que no han hecho caso. Y que siguen esperando.

La portavoz del grupo municipal de EH-Bildu en Urnieta, Ainara De Miguel, vuelve a tomar la palabra. Dice que en esta mesa hay diferentes grupos políticos, y señala que viviría con mucha ilusión la participación de todos.

El Alcalde, Mikel Pagola, dice que ellos también están de acuerdo con lo manifestado por la Sra. De Miguel. Que es consciente de que para el buen funcionamiento de la comisión de Paz y Convivencia

2019KO AZAROAREN 26KO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 26 DE NOVIEMBRE DE 2019

alderdiak egon behar direla kontziente dela. Baina beraiek ez dutela erabakitzen nork parte hartu behar duen bertan, bakoitzak egiten duela bere hautaketa. Gonzalez jaunari zuzenduz, orain dela bi urte Talde Sozialistako exekutibarekin egin beharreko eskuhartze hori, bi alderdi politikoen arteko komunikazioa normalizatua ez zegoelako izan zela esaten dio. Eta ostean egin zuten bileran, hartutako konpromezuen berri Bake eta Bizikidetzako bitartekari lanak egiten dituen enpresako langile batek eman zietela informazio guztia, eta hortik aurrera, beraiek alderdi sozialistako ordezkarien erantzunaren zai geratu zirela eta ordutik ez dutela urratsik eman.

2019ko maiatzaren 26ko toki-erakundeen hauteskundeak ostean 2019ko ekainaren 15ean Udalaren Batza eratu zen.

Legealdi Plana gobernu taldeak udalerriaz duen ikuspegia gauzatzeko estrategiko jotzen dituen ildo nagusiak biltzen dituen dokumentua da; hala, legealdian garatu nahi den estrategia zehatza eta haren oinarrian dauden proiektu edo jarduerak ildoak zehazten ditu.

Ildo horretatik, Legealdi Planak nabarmendu egiten du gobernu taldearen jarduerak zehatzen eta helburu handien arteko lotura.

Edonola ere, Legealdi Planak ez du izan behar Udalak egingo duen lan guztiaren bilduma: helburu estrategiko nagusiak lortzeko garrantzi gehien duten jardueren berri eman behar du. Gainerako helburuak eta jarduerak dagokien sailerako zuzendaritza organoen bidez kudeatuko dira.

Legealdi Plana gobernu taldearentzako eta erakundearen ardura tekniko gorena duten pertsonentzako kudeaketa tresna bat da, eta zuzendaritza politikoko eta tekniko organoetako dagokie haren jarraipena, kudeaketa eta ebaluazioa egitea.

Gardentasunari, informazio publikoaren sarbideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 6.2 artikulua eta Euskadiko Toki Erakundeetako buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen

deben estar las tres partes representadas en esta Corporación. Pero que ellos no deciden quién debe participar en él, que cada uno hace su elección. Dirigiéndose al señor González, le dice que esa intervención de hace dos años con la ejecutiva del Grupo Socialista fue porque la comunicación entre los dos partidos políticos no estaba normalizada. Y que en la reunión celebrada posteriormente, los compromisos adquiridos fueron comunicados por un trabajador de la empresa mediadora en Paz y Convivencia, y que a partir de ahí, ellos se quedaron a la espera de la respuesta de los representantes del Partido Socialista y desde entonces no han dado ningún paso.

Tras las elecciones locales celebradas el 26 de mayo de 2019 el 15 de junio de 2019 se celebró la sesión constitutiva de la Corporación municipal.

El Plan de Legislatura es un documento que recoge los grandes ejes que el Equipo de Gobierno considera estratégicos para avanzar hacia su Visión del municipio, especificando qué estrategias concretas se pretenden desarrollar durante la Legislatura y en qué proyectos o líneas de actuación se sustentan.

De esta forma, el Plan de Legislatura hace visible la correspondencia entre las actuaciones concretas y los grandes objetivos que persigue el Equipo de Gobierno. Sin embargo, el Plan de Legislatura no ha de ser una mera recopilación de todo lo que el Ayuntamiento va a realizar, sino exclusivamente de aquellas actuaciones que impactan de manera significativa en el logro de los grandes objetivos estratégicos. El resto de objetivos y actuaciones han de encontrar espacio para su gestión en los órganos de dirección departamental que les corresponda.

El Plan de Legislatura es un instrumento para la gestión del Equipo de Gobierno y las personas con la máxima responsabilidad técnica en la organización, debiendo ser seguido, gestionado y evaluado en los órganos de dirección política y técnica.

A los efectos de su general conocimiento y seguimiento tanto el artículo 6.2 de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de Transparencia, Acceso a la Información Pública y Buen Gobierno como el

2019KO AZAROAREN 26KO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 26 DE NOVIEMBRE DE 2019

52.1.k) artikulua Udala behartzen du helburu zehatzak, jarduerak eta bitartekoak finkatzen dituzten urte anitzeko planak bere Gardentasun Atarian argitaratzera. Betetze-maila eta emaitzak aldizka ebaluatu eta argitaratu behar dira, neurketa-eta balorazio-adierazleekin batera, administrazio eskudun bakoitzak zehazten duen moduan.

Hori dela eta, plana eta haren ebaluazioa Udalaren webgunean dagoen Gardentasunaren Atarian argitaratu beharko dira.

Ikusirik Gobernu Taldeak udala osatzen duten arlo, sail edo zerbitzuetan erantzukizun teknikoak dutenen eta Udalbatza osatzen duten gainerako udal-talde politikoetako zinegotzien parte-hartzearekin egindako 2019-2023 Legealdi Planaren proposamena.

Ikusita 2019ko azaroaren 18an Antolakuntzako Batzorde Informatzaileak emandako aldeko irizpena.

Alkateak gaia bozkatzea proposatu du, eta honako emaitza hau izan du:

Alde: 7. (URNIETAKO EUSKO ABERTZALEAK)

Aurka: 2. (URNIETAKO UDAL TALDE SOZIALISTA)

Abstentzioak: 3 (URNIETAKO EH BILDU).

Udalbatzarrak, beharrezko legezko gehiengoarekin ondorengo

ERABAKIA

Lehenengoa.- Urnieta Udalaren 2019-2023 legealdi Plana onartzea.

Bigarrena.- 2019-2023 legealdi Plana Urnieta Udalaren webgunean argitaratzea.

artículo 52.1.k) de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, obligan al Ayuntamiento a publicar en su Portal de Transparencia los planes plurianuales en los que se fijan objetivos concretos, así como las actividades, medios y tiempo previsto para su consecución. Su grado de cumplimiento y resultados deben asimismo ser objeto de evaluación y publicación periódica junto con los indicadores de medida y valoración, en la forma en que se determine por cada Administración competente.

Por lo anterior, el plan y su evaluación deberán ser publicados en el Portal de Transparencia alojado en la página web del Ayuntamiento.

Vista la propuesta de Plan de Legislatura 2019-2023 elaborado por el Equipo de Gobierno con la participación de quienes tienen responsabilidad técnica en las diferentes Áreas, Departamentos o Servicios que componen el Ayuntamiento y de los/las Concejales/as de los demás grupos políticos municipales integrantes de la Corporación municipal.

Visto el dictamen favorable emitido por la Comisión Informativa de Organización en sesión celebrada el 18 de noviembre del 2019.

El alcalde ha propuesto someter a votación el asunto, con el siguiente resultado:

A favor: 7. (URNIETAKO EUSKO ABERTZALEAK)

En contra: 2. (GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA DEL AYUNTAMIENTO DE URNIETA)

Abstenciones: 3. (URNIETAKO EH BILDU)

El Pleno adopta con la mayoría legal requerida, el siguiente

ACUERDO

Primero.- Aprobar el Plan de Legislatura 2019-2023 del Ayuntamiento de Urnieta.

Segundo.- Publicar el Plan de Legislatura 2019-2023 en la página web del Ayuntamiento de Urnieta.

2019KO AZAROAREN 26KO OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO ORDINARIO DEL 26 DE NOVIEMBRE DE 2019

4.- Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sareari, Gaztematikari Atxikimenduaren onarpena.

Mikel Pagola alkateak puntu honen azalpenak eman ditu.

Botere publikoek haur, nerabe eta gazteei dagokienez duten ardura berezia ez da haiek babestera mugatzen; haur eta gazteen sustapena sustatzea ere badute xede. Haur, nerabe eta gazteen inguruko berariazko politika publikoetan, babesa eta sustapena alderdi osagarri eta ezinbestekoak dira; izan ere, pertsonen bizitzako aldi horien berezko zaurgarritasunaz arduratzea bezain funtsezkoa da gizakien bizitzan oinarritzekoak diren etapa horietan haien garapen osoa bultzatzea. Haur eta gazteen sustapenerako politikek, haien babeserako politikekin batera, haur, nerabe eta gazteentzako berariazko jardueren esparru bat osatzen dute eta, aldi berean, haur, nerabe eta gazteen eskubideekiko ardura areago nabarmetzen dute eta eraginkorrago egiten, hala politika publiko guztietan nola gizarte bizitzan.

Euskal Autonomia Erkidegoak oraindik gazteriar buruzko lege orokor edo globalik ez badu ere (onartzeko bidean dago), ezin da bazter utzi arlo horretan izan den jarduera arauemaile eta planifikatzailea, besteak beste gazte planetan jasoa. Arautze eta partaidetza jarduera hori lagungarria izan da haur eta gazteen sustapeneraren jarduketa esparrua garatu, moldatu eta ezagutzera emateko; horren fruitu gisa nabarmendu daitezke, adibidez, Euskadiko Kontseiluaren 6/1986 Legea eta Kultura sailburuaren 1999ko abenduaren 10eko Agindua, Gazteen Euskal Behatokiari buruzkoa.

Hain zuzen ere, azken hogeita hamar urteetan Gipuzkoako gizarte zibilak eta erakunde publikoek ibilbide nabarmena egin dute haur eta gazteen sustapenean. Ibilbide horrek ardura publikoa eta lankidetzazko partaidetza baliatzeko eredu bat ekarri du, hiru etapak, haurtzarora, nerabezarora eta gazteria, *continuum* gisa hartzen dituen. Haur eta gazteen sustapenerako politika sektoreen arteko koordinazioa bultzatu eta zeharkako eragina izan nahi duen arlo gisa eratu da haur, nerabe eta

4.- Aprobación de Adhesión a la Red Interinstitucional de Promoción de la Infancia y la Juventud del Territorio Histórico de Gipuzkoa, Gaztematika.

El alcalde Mikel Pagola explica el acuerdo que se va tomar en este punto.

Vista la especial responsabilidad que los poderes públicos tienen en relación con las niñas, niños, adolescentes y jóvenes no se refiere únicamente a su protección, sino que alcanza también a la promoción infantil y juvenil. En las políticas públicas específicas relativas a la infancia, la adolescencia y la juventud, la protección y la promoción son dos dimensiones complementarias e ineludibles, pues, si bien es fundamental ocuparse de la vulnerabilidad inherente a estos períodos de la vida de las personas, no lo es menos impulsar su pleno desarrollo en estas etapas fundamentales de la vida humana. Las políticas de promoción infantil y juvenil, complementándose con las de protección infantil y juvenil, generan un ámbito de actividades específicas para la infancia, adolescencia y juventud, a la vez que contribuyen a hacer más presente y eficaz la preocupación por los derechos de las niñas, niños, adolescentes y jóvenes en el conjunto de las políticas públicas y la vida social.

